

Eta alderantziz



UXUE APAOLAZA LARREA

Madrili begira egotea ez da hemen jarrera txalotuegia izaten. Ni jartzen naiz noizean behin, nostalgia, han bizi izan nintzelako. Eta noizean behin, hango pauso hotsa honaino heltzen da. Aspaldi hartan plazak bete zirenean, meatzariei ongi etorria egiteko errepideak bete zirenean, osasun publikoaren alde dabiltzanean, hainbatetan. Pandemia garaian izan zen lehen arretaren alde bizkarra jarri zuenik, azaroan bertan kalera atera zenik... asteburu honetan berriro. Nazkatuta, zaurituta. Eta bizilaguna ibilian ikusten baduzu, hasi zu ere pausoa prestatzen.

Izan ere, hemen uste dute gauzak “ongi” egin dituztela, zailtasunak zailtasun; eta berriro irabaziz gero, “gaur egungo bide beretik” jarraitu nahi dute, “ekimen pribatuarekin eta hirugarren sektorearekin” (pribatuarekin eta pribatuarekin) “lankidetzan”. Madrilen bezala hori. “Autokonplazentzian erori” gabe, noski; pobreren bat hilko zaie, ziur, baina hori amortizatuta dago. Pobreak ez gaude kontzientziatuta bizitza osasungarria edukitzeko, barazki gutxi jaten dugu, eta gantz pila bat. Kirolak ez. Pandemian ere hor ibili ginen garraio publikoan pilatuta, musukoak sudurraren azpitik jarrita. Edan egiten dugu, eta erre, oso *demodé* gara. Oraindik ez gara sendabelarretan adituak, edo ez ditugu emozioak kontrolatzen, eta minbizi negartiak sortzen zaizkigu, ez ditugu unibertsoaren mezuak irakurtzen...

Bai, egia da, “ongi” egin dute. Ziur asko, irabazi egingo dute. Baina tira, jakin dezatela batzuek zientziaren aurrerapenak herriaren zerbitzura nahi ditugula, eta badakigula gure bizi-itxaropena lehen arretak markatzen duela, eta badakigula kendu egin nahi digutela, beste modu batera esanda, baina kendu, eta ahalegina ez dela gu mediku egitea, gurea den eskubidea aldarrikatzea baizik. Zuen “ongi”, gure “gaizki” da. Beraz, eta alderantziz. ●



ADUR

Ustelkeria

Zazpi urteko kartzela zigorra eskatu du Fiskaltzak Aitor Santisteban EAJko Alonsotegiko alkate ohiaentzat. Dirua bidegabe erabiltzea eta faltsukeria egotzi dizkio. Bi milioi eurotik gorako dirulaguntzak jaso zituen bere legegaldian, hainbat obra-agiri faltsututa.

Isunak

Eusko Jaurlaritzak eta EAeko 50.000 biztanletik gorako udalek adostu dute arma zuriak oker erabiltzeagatik ezartzen diren zigorrak gogortzea. Joan den astean sartu da indarrean araudi berria eta isunen zenbatekoak handitu dira: debekatutako arma bat eramateagatik, adibidez, 1.500 euro.

Dantza

Uztaritzeko kaskaroten taldean emakumeek hartu dute parte estreinakoz, Baionan lehenik, Uztaritzen gero. Uztaritzeko Izartxo dantza taldeko kideak ateratzen dira kaskarotetan. Taldea emakume zein gizonek osatzen dute, baina orain arte inauterietan gizonek baino ez zuten dantza egiten.